



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## EAE-KO ENPRESEN PARTAIDETZA DUTEN KONTZENTRAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

LEA/AVC 435 zk. 2020 PROM

### Aurkibidea:

I. TXOSTENAREN XEDEA.....	2
II. ARAUDI APLIKAGARRIA.....	2
III. KONTZENTRAZIOEN KONTZEPTUA .....	3
1. Lehen independenteak ziren enpresen fusioak.....	4
2. Kontrola eskuratzea .....	4
A. Kontrol eskusiboa.....	5
B. Baterako kontrola.....	5
IV. JAKINARAZPEN-ATALASEAK .....	5
1. Dimensio europarreko kontzentrazioak.....	5
2. Estatu-dimensioa duten kontzentrazioak .....	6
A. Kontzentrazioak kontrolatzeko prozedura .....	7
B. Autonomia-erkidegoei txostena eskatzea .....	8
V. 2014-2020KO EKAINA ALDIAN MLBN-K BAIMENDUTAKO KONTZENTRAZIO- PROZESUETAN PARTE HARTU DUTEN EAE-KO ENPRESAK .....	10
1. Azken urtea: 2019ko uztailaren 1etik 2020ko ekainaren 30era.....	10
A. C/1112/20 EQUIPAFASA/ACTIVOS SIMPLY .....	10
B. C/1103/20 POLYONE/ACTIVOS MASTERBATCH CLARIANT .....	11
C. C/1092/20 BKS / SOCIEDADES KAM .....	11
D. C/1088/20 CASTLETON/BIZKAIA .....	12
E. C/1073/19 CARTAMUNDI/JARDEN .....	12
F. C/1080/19: 3I / AGESA .....	12
G. C/1077/19 DERICHEBOURG / LYRSA .....	12
H. UVESCO / SIMPLY -ACTIVOS- (C/1057/19).....	13
I. LYNTIA / NEGOCIO IBERDROLA (C/1031/19) .....	13
J. AVANZA / GRUPO PESA (C/1043/19).....	13
2. 2014-2020ko ekaina.....	13
3. LEAren txostena igortzea .....	14
ONDORIOAK.....	15
VI. ERANSKINAK.....	17

### Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea  
Rafael Iturriaga Nieva, kontseilukidea  
Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea



Ainara Herce San Martín, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), adierazitako osaerarekin, txosten hau eman du, 2020ko uztailaren 28an eginiko bileran, EAEko enpresek MLBNk baimendutako kontzentrazio-eragiketetan izan duten esku-hartzeari dagokionez.

## I. TXOSTENAREN XEDEA

1. 2019ko uztailaren 24an, LEKek txosten bat onartu zuen, eta bertan, MLBNk onartutako kontzentrazio-eragiketak aztertu ziren, 2014tik 2019ko ekainera bitartean EAEko enpresek parte hartu zutenetan. Kontzentrazio horiek EAEn kokatutako enpresei zer neurritan eragiten dieten kuantifikatzea da xedea, eta horren arabera, baloratzea ea egokia den Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) aurretiko azterketa bat egitea kontzentrazio horiek lehiaren ikuspegitik zer ondorio dituzten jakiteko.
2. Txosten horren xedeak indarrean jarraitzen du LEAren lehentasunen artean, beharrezkotzat jotzen baita enpresen kontzentrazio-prozesuek EAEko enpresarean zer neurritan eragiten duten jakitea. Horrenbestez, LEAk garrantzitsutzat jotzen du EAEko enpresek parte hartzen duten kontzentrazio-eragiketen urteko jarraipena eta azterketa egitea.
3. Hori dela eta, 2019ko uztailaren 1etik 2020ko ekainaren 30era egindako eragiketak aztertzen dituen txosten hau egin da, eta horrela, urtebete luzatzen da EAEko enpresei eragiten dieten kontzentrazioen jarraipen-aldi osoa, 2014ko urtarrilaren 1etik 2020ko ekainaren 30era arte.
4. Interesgarritzat jo da kontzentrazioei buruzko araudia berrikusten duen aurreko txosteneko apartatuak mantentzea, honako alderdi hauei dagokienez: kontzeptua, kontzentrazio motak, jakinarazpen-atalaseak eta kontzentrazioak kontrolatzeko prozedurak.

## II. ARAUDI APLIKAGARRIA

5. **Dimentsio europarra duten kontzentrazioei** 2004ko urtarrilaren 20ko **139/2004 (EE) Erregelamendua** aplikatzen zaie, Enpresen Arteko Kontzentrazioak Kontrolatzeari buruzkoa (Kontzentrazioen Erregelamendua)<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32004R0139&from=EN>



Aipatutako araudi hori interpretazio-irizpideak jasotzen dituzten Jakinarazpen eta testu batzuekin osatzen da. Batzordeak pixkanaka onartu ditu irizpide horiek kontzentrazio-kontrolari buruzko Europako araubidearen aplikazio-gidalerroak osatu ahal izateko.

Aipatzekoak dira, lehiaren alorreko auzi juridikzionaleri buruzko Jakinarazpen bateratua (2008/C95/01), Enpresen Arteko Kontzentrazioak Kontrolatzeari buruzko Batzordearen 139/2004 (EE) Erregelamenduaren arabera egindakoa<sup>2</sup>, eta kontzentrazio-eragiketa jakin batzuk tramitzeko prozedura sinplifikatuari buruzko Jakinarazpena (2013/C366/04), Batzordearen 139/2004 (EE) Erregelamenduaren arabera<sup>3</sup>.

**6. Spainian**, kontzentrazioen kontrolaren aplikazioa araudi honen bidez erregulatzen da:

- **15/2007 Legea**, uztailaren 3koa, Lehia Defendatzekoa (LDL)<sup>4</sup> eta
- **261/2008 Errege Dekretua**, otsailaren 22koa, Lehiaren Defentsarako Erregelamendua (LDA) onartzen duena<sup>5</sup>.

MLBNk kasu hauetan soilik izango du kontzentrazio-eragiketa bat aztertzeko eskumena: Batasunaren atalaseak gainditu gabe (edo Europako Batzordeak kasua Espainiara igorri ondoren), LDL-ren 8. artikulua aurreikusitako jakinarazpen-atalaseak gainditzen direnean.

### III. KONTZENTRAZIOEN KONTZEPTUA

**7.** Kontzentrazioaren kontzeptua independentea da eragiketa gauzatzeko erabiltzen den forma juridikoarekiko. Hala, nahiz eta salerosketa izan kontzentrazio ekonomikoko formarik ohikoena, kontzentrazio ekonomikotzat hartu daitezke, halaber, akziodunen akordioak edo sozietate bati egindako aktibo-ekarpenak, baldin eta enpresa edo negozio-unitate baten gaineko kontrola modu egonkorrean aldarazten badute.

**8.** Kontzentrazioen Erregelamenduari jarraikiz, kontzentrazio batek eraginpeko enpresen kontrolean aldaketa iraunkorra eragiten duten eragiketak soilik hartzen ditu barnean. Jurisprudentziaren arabera, aldaketa iraunkorra izango da 8 urtetik 15era bitartekoa bada.

**9.** Hala, bi kontzentrazio mota ezartzen dira:

- lehen independenteak ziren enpresen fusio bidez sortzen direnak.

<sup>2</sup> [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52008XC0416\(08\)&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52008XC0416(08)&from=ES)

<sup>3</sup> [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52013XC1214\(02\)&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52013XC1214(02)&from=ES)

<sup>4</sup> <https://www.boe.es/buscar/pdf/2007/BOE-A-2007-12946-consolidado.pdf>

<sup>5</sup> <https://www.boe.es/buscar/pdf/2008/BOE-A-2008-3646-consolidado.pdf>



— kontrola eskuratuta sortutakoak.

## 1. Lehen independenteak ziren enpresen fusioak

**10.** Kontzentrazioen Erregelamenduko 3. artikulua 1. apartatuko b) letrak ezarritakoari jarraikiz, kontzentrazio mota hori sortzen da lehen independenteak ziren bi enpresa edo gehiago elkarrekin fusionatzen direnean eta enpresa berri bat sortzen dutenean, bereizitako entitate juridiko izateari utzita.

Kontzentrazio dei diezaiokegu, halaber, enpresa batek beste bat xurgatzeari; enpresa xurgatzaileak eutsi egiten dio bere izaera juridikoari, eta xurgatuak galdu egiten du.

**11.** Kontzentrazio mota hori gerta daiteke, halaber, maila juridikoan fusiorik gertatu ez arren, lehen independenteak ziren enpresen jarduerak konbinatzen badira eta horrek entitate ekonomiko bakarra sortzea badakar. Hori gerta daiteke, batez ere, beren izaera juridikoa mantentzen duten bi enpresek edo gehiagok, kontratu bidez, kudeaketa ekonomiko bateratu bat edo kotizazio bikoitzeko elkarte baten egitura hartzen dutenean. Eragiketa bat kontzentraziotzat hartuko da baldin eta enpresa partaideen fusioa eragiten badu *de facto*, eta enpresa horiek entitate ekonomiko bakarra eratzen badute.

Kontzentrazio hori *de facto* baden zehazteko, ezinbesteko baldintza da enpresa horiek kudeaketa ekonomiko bakar eta iraunkorra izatea. Besteak beste, aipatzekoak dira faktore garrantzitsu hauek: galdu-irabazien barne-konpentsazioa, diru-sarreraren banaketa taldeko entitatean artean, erantzukizun solidarioa edo kanpo-arriskuak hainbanatzea. *De facto*-ko fusioa kontratuzko akordioetan soilik oinarritu daiteke, baina indartu ere egin daiteke baldin eta entitate ekonomikoa osatzen duten enpresek partaidetzen eresketa gurutzatua egiten badute.

## 2. Kontrola eskuratzea

**12.** Kontzentrazioen Erregelamenduko 3. artikulua 1. apartatuko b) letrari jarraikiz, kontzentrazio bat sortzen da kontrola eskuratzen denean. Kontrol hori enpresa bakar batek eskura dezake edo enpresa batek baino gehiagok, elkarrekin<sup>6</sup>.

---

<sup>6</sup> Batzordearen Jakinarazpen bateratua, lehiaren arloko auzi jurisdikzionalei buruzkoa (2008/C 95/01), enpresen arteko kontrolari buruzko Batzordearen 139/2004 (EE) Erregelamenduak ezarritakoari jarraikiz egindakoa.



## A. Kontrol eskusiboa

**13.** Enpresa batek **kontrol eskusiboa eskuratzen du** berak bakarrik beste enpresa baten gainean eragin erabakigarria izan dezakeenean. Enpresa batek bi egoera orokor hauetan izan dezake kontrol eskusiboa:

- Lehen kasuan, kontrola bakarka baliatzen duen enpresak ahalmena du beste enpresaren lehiaketa-estrategiarekin lotutako erabakiak hartzeko. Oro har, ahalmen hori lortzeko, konpainia bateko boto-eskubideen gehiengoa eskuratzen da.

- Bigarren kasuan ere, kontrol eskusiboa dago akziodun bakar batek enpresa baten erabaki estrategikoei betoa jar diezaiekeelako; alabaina, akziodun horrek ezin ditu berak bakarrik ezarri erabaki horiek (kontrol eskusibo negatiboa). Kasu honetan, akziodun bakarrak duen eragin-ahalmena enpresa bat beste batzuekin batera kontrolatzen duen akziodun batenaren parekoa da, hau da, erabaki estrategikoak blokeatzeko ahalmena du. Beste batzuekin batera kontrolatzen den enpresaren kasuan ez bezala, ez dago eragin-ahalmen bereko beste akziodunik, eta kontrol eskusibo negatiboa duen akzioduna ez dago behartuta beste akziodun jakin batzuekin lankidetzan aritzera kontrolpeko enpresaren jokaera estrategikoa zehazteko.

## B. Baterako kontrola

**14.** Baterako kontrola dago bi enpresek edo gehiagok, edo bi pertsonak edo gehiagok beste enpresa baten gainean eragin erabakigarria izan dezaketenean. Testuinguru honetan, eragin erabakigarria izateak hau esan nahi du: enpresa baten lehiaketa-estrategia zehazten duten ekintzak blokeatzeko ahalmena izatea. Kontrol eskusiboak enpresa baten erabaki estrategikoak zehazteko ahalmena ematen dio akziodun jakin bati. Baterako kontrolean, aldiz, blokeo egoera batetara iristeko aukera dago; izan ere, enpresa matrizeek, bi edo gehiago izan daitezke, eskumena dute proposatutako erabaki estrategikoak baztertzeko. Ondorioz, akziodun horiek akordio batetara iritsi behar dute enpresaren merkataritza-politika partaidetzan oinarrituta zehazteko, eta, beraz, lankidetzan aritzera behartuta daude.

# IV. JAKINARAZPEN-ATALASEAK

## 1. Dimentsio europarreko kontzentrazioak

**15.** Kontzentrazioen Erregelamenduko 1. artikulua atalase batzuk ezartzen ditu, eta haiek gaudituz gero, kontzentrazio-eragiketaren berri eman behar zaio Europako Batzordeari. Funtsean, estatu kide bati baino gehiagori eragiten dieten eragiketa handiak dira. Eragiketa batek dimentsio komunitarioa duen ala ez erabakitzeko,



enpresa partaideen mundu-mailako eta erkidego-mailako fakturazioa hartzen da kontutan.

### **1. artikulua. Aplikazio-eremua**

1. Erregelamendu hau aplikatuko zaie artikuluko honetako 2. eta 3. apartatuetako definizioei jarraikiz dimentsio komunitarioa duten kontzentrazioei, ezertan eragotzi gabe 4. artikuluko 5. apartatuan eta 22. artikuluan ezarritakoa.

2. Kontzentrazio batek kasu hauetan izango du dimentsio komunitarioa:

- a) eraginpeko enpresen multzoak mundu-mailan egindako negozio-bolumenaren guztizkoa 5.000 milioi eurotik gorakoa bada, eta
- b) eraginpeko enpresetatik bik behintzat bakoitzak bere aldetik 250 milioi euroko negozio-bolumen totala egiten badute EBn,

nolaz eta eraginpeko enpresa bakoitzak Batasunean egindako negozio-bolumen totalaren bi herenetik gora estatu kide berean egin ez duen.

3. 2. apartatuan ezarritako atalasea gainditzen ez duen kontzentrazio batek dimentsio komunitarioa izango du kasu hauetan:

- a) eraginpeko enpresen multzoak mundu-mailan egindako negozio-bolumen totala 2.500 milioi eurotik gorakoa bada;
- b) EBko 3 herrialdetan behintzat —haisetako bakoitzean—, eraginpeko enpresa guztiek egindako negozio-bolumen totala 100 milioitik gorakoa bada;
- c) EBko 3 herrialdetan behintzat —haisetako bakoitzean— eraginpeko 2 enpresek behintzat bakoitzak bere aldetik egindako negozio-bolumen totala 25 milioi eurotik gorakoa bada, eta
- d) eraginpeko 2 enpresek behintzat, bakoitzak bere aldetik EBn egindako negozio-bolumen totala 100 milioitik gorakoa bada, nolaz eta eraginpeko enpresa bakoitzak Batasunean egindako negozio-bolumen totalaren bi herenetik gora EBko herrialde batean egin ez duen,

nolaz eta eraginpeko enpresa bakoitzak Batasunean egindako negozio-bolumen totalaren bi herenetik gora estatu kide berean egin ez duen.

## **2. Estatu-dimentsioa duten kontzentrazioak**

**16.** Lehia murrizten duten jardueren alorrean ez bezala —kasu horretan autonomia-erkidegoetako organoek dute zehapen-espeditateak izapidetzeko eta ebazteko eskumena—, LDL-k erabateko eskumena esleitzen dio MLBNri derrigorrezkoak diren jakinarazpen-atalaseak gainditzen dituzten kontzentrazioak aztertzeko.

**17.** Kontzentrazio ekonomikoko zenbait eragiketek nabarmen eragin diezaiokete merkatuetako benetako lehiari; hori dela eta, LDL-k aurretiazko kontrol-sistema bat ezartzen die, derrigorrezkoa eta MLBNren bidez gauzatuko dena, merkatu-kuota jakin bat erdiesten duten kontzentrazioei (8.1.a art.) edo negozio-bolumen jakin bat erdiesten dutenei (8.1.b art.), baldin eta kontzentrazio horiek Europako Batzordeari jakinarazteko obligaziorik ez badago.



## 8. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Lege honetan aipatzen den kontrol-prozedura ondoren zehazten diren **bi egoeretakoren bat gertatzen denean** aplikatuko zaie kontzentrazioei:

a) Kontzentrazioaren ondorioz, dena delako produktu edo zerbitzuak estatuan edo estatuaren barruko merkatu geografiko zehatz baten barruan duen **merkatu adierazkorraren % 30eko edo goragoko kuota eskuratzea**.

Kontrol-prozeduratik kanpo geratuko dira ondorengo ezaugarriak dituzten kontzentrazio ekonomikoak: a) letra honetan ezartzen dena beteta ere, erositako sozietatearen edo aktiboen negozio-bolumen orokorra azken ekitaldi kontablean 10 milioi eurotik gorakoa ez izatea Espainian, baina baldin eta taldean parte hartzen dutenek bakoitzak bere aldetik edo elkarrekin % 50eko kuota edo handiagoa ez badute kasuan kasuko merkatuetan, dela estatuan, dela estatuaren barruan zehazturiko merkatu geografiko jakin baten barruan.

b) **Parte hartzen dutenen negozio-bolumen orokorra azken ekitaldi kontablean 240 milioi eurotik gorakoa izatea Espainian, baina baldin eta taldean parte hartzen dutenetako bik behintzat bakoitzak bere aldetik 60 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumena baldin badute Espainian.**

2. Lege honetan aurreikusten diren obligazioek ez diete eragingo dimentsio komunitarioa duten kontzentrazioei, kontzentrazio horiek Kontseiluaren urtarrilaren 20ko 139/2004 Erregelamenduan (CE) jasotako definizioaren arabera kontuan izanda (enpresen arteko kontzentrazioak kontrolatzeari buruzko erregelamendua da), non eta Europar Batzordeak dena delako kontzentrazioari buruzko erabakia Espainiara igortzea erabaki ez duen, gorago aipatutako erregelamendu horretan esaten denaz bat.

**18.** Bi atalase horien oinarrian hau dago: eragiketa mota horiek duten garrantzia kontzentrazioaren eraginpeko merkatuan (atalasea edo kuota) edo, oro har, Espainiako ekonomian (negozio-bolumenaren atalasea). MLBNri jakinarazi beharreko edozein kontzentrazio-eragiketa bertan behera utzi beharko da (salbuespenak salbuespen) hura gauzatzeko baimena lortu arte.

### A. Kontzentrazioak kontrolatzeko prozedura

**19.** Kontzentrazio-eragiketa bat jakinarazteko, enpresa eskuratzailleak edo enpresa eskuratzailleek **jakinarazpen-inprimakia** bete beharko dute. Inprimaki hori MLBNren egoitza elektronikoa eskuragai dagoen Lehiaren Defentsarako Araudian aurreikusten da.

Jakinarazpen-atalaseak gainditzen dituzten kontzentrazio-eragiketek benetako lehia *a priori* duten eragina handia ez den kasuetan (aldeak gainjartzen ez direlako, sortu den entitateak kuota txikia duelako merkatuan, eta abar), jakinarazpena **inprimaki laburtu** baten bidez egitea aurreikusten du Lehiaren Defentsarako Legeak<sup>7</sup>.

<sup>7</sup> <https://www.cnmc.es/sites/default/files/ficheros/cnmc/COMUNICACION%20C3%93N%20PA.pdf>



**20.** Lehiaren Defentsarako Legeak **bi fasetan** banatzen du MLBNk kontzentrazioa kontrolatzeko egingo den prozedura.

**Lehen fasean**, gehienera jota hilabete bat irauten du, jakinarazitako eragiketa guztiak aztertzen dira, eta Batzordeak erabakitzen du jakinarazitako eragiketa artxibatu egin behar den, baimendu daitekeen (konpromisoekin edo konpromisorik gabe), edo, aitzitik, kontzentrazio hori xehetasun handiagoz aztertu behar den sor daitezkeen lehia-arazoak direla-eta. Kasu horretan, prozedura bigarren fasean sartzen da. Bigarren fase horretan hirugarren interesdunen parte-hartzea aurreikusten da.

Kontzentrazio-eragiketa **bigarren fasean** aztertu ondoren, kontzentrazioa erabat edo konpromisoekin baimendu behar den erabakitzen du Batzordeak. Konpromisoak ez badira aski identifikatutako lehia-arazoak konpontzeko, Batzordeak erabaki dezake kontzentrazioari baldintzak ezartzea jakinarazleak proposatutako konpromisoak osatzeko edo ordeztzeko. Azkenik, identifikatutako lehia-arazoak konpon ditzakeen konpromisorik edo baldintzarik ez badago, Batzordeak debekatu egin dezake kontzentrazioa.

Batzordeak hartutako ebazpenak debekatu egiten badu edo konpromiso nahiz baldintza batzuk bete beharra eskatzen badu, Ekonomia Ministerioak hamabost eguneko epea du kontzentrazioa Ministroen Kontseiluan aurkezteko. Azken erabakia, kontzentrazio hori baldintzekin edo baldintzarik gabe baimendu dezakeena, gehienera jota hilabeteko epean hartu behar da. MLBNren Kontseiluari txosten bat eskatu ahal izango zaio.

## **B. Autonomia-erkidegoei txostena eskatzea**

**21.** LDL-ren 57. artikulua kontzentrazio-eragiketa baten instrukzioa eta ebazpena arautzen ditu lehen fasean, lehiaren defentsarako agintari autonomikoei inolako eginkizunik esleitu gabe.

**22.** Agintari autonomikoei bigarren faseko instrukzio eta ebazpenean soilik har dezakete parte kontzentrazioaren kontrolean, baldin eta kontzentrazio horrek eragin handia badu autonomia-erkidego jakin baten lurraldean. Kasu horietan, Ikerketa Zuzendaritzak dagokion txostena eskatuko dio, loteslea izango ez dena, gaiak ukitutako autonomia-erkidego horri, LDL-ren 58. artikuluan eta LDA-ren 65. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

### **LDL-ren 58. artikulua. Bigarren fasean instruitzea eta ebaztea.**

1. Prozeduraren bigarren fasea hasitakoan, Ikerketen Zuzendaritzak kontzentrazioari buruzko ohar labur bat idatziko du, eta ohar horren kontu konfidentzialekin zerikusia duten gaiak konpondu ostean, jendaurrean jarriko da, eta gaiak eragin liezaiekeen pertsona fisiko edo juridikoei eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kontseiluari jakinaraziko zaie, 10 eguneko epean alegazioak aurkez ditzaten.





**Baldin eta kontzentrazioak autonomia-erkidego jakin baten lurraldeari modu nabarmenean eragiten badio, Ikerketen Zuzendaritzak derrigorrezko txostena, loteslea izango ez dena, eskatuko dio gaiak eragiten dion autonomia-erkidego horri, eta gorago aipatutako ohar laburraz batera, aurkeztutako jakinarazpenaren kopia ere igorriko dio, kontu konfidentzialekin zerikusia duten gaiak konpondu ostean, hogeit eguneko epean txostena egin dezan.**

2. Kontzentrazioaren ondorioz lehiarentzat sortuko diren ustezko oztopoen berri, gertakari zehatzen plegu batean jasoko da, eta Ikerketen Zuzendaritzak idatziko du. Plegu horren berri interesatuei jakinaraziko zaie, 10 eguneko epean alegazioak egin ditzaten.

3. Jakinarazleek hala eskatuz gero, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluan ikustaldia izango da.

4. Ikerketen Zuzendaritzak idatzitako behin betiko ebazpenaren proposamena jaso ostean, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak azken erabakia hartuko du, ebazpen baten bidez, eta aukera hauek izango ditu:

- a) Kontzentrazioa baimenduko du.
- b) Kontzentrazioari baimena emateko, jakinarazleek berek proposatutako konpromiso edo baldintza jakin batzuk betetzea eskatuko du.
- c) Kontzentrazioa debekatuko du.
- d) Jarduerak artxibatzea erabakiko du, lege honetan aurreikusitako kasuetan.

5. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpenak Ekonomia eta Ogasun Ministerioari jakinaraziko zaizkio, interesatuei jakinaraztearekin batera.

6. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, bigarren fasean hartutako ebazpenaren bidez, kontzentrazio bat debekatu edo kontzentrazioa aurrera eramateko konpromiso edo baldintza batzuk bete beharra eskatzen duen kasuetan, ebazpen horiek ez dira ez eraginkorrak ez betearaztekoak izango, eta ez dute administrazio-bidea amaituko, ondorengo kasuetan:

- a) Ekonomia eta Ogasun Ministroak kontzentrazioaren gaia Ministroen Kontseiluan ez aurkeztea erabakitzen duen artean, edo lege honen 36. artikuluan hori egiteko jarritako legezko epea igaro artean.
- b) Ekonomia eta Ogasun Ministroak kontzentrazioaren gaia Ministroen Kontseiluan aurkeztea erabakitzen duenean, Ministroen Kontseiluak Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpena berresten duen kontzentrazioari buruzko akordio bat hartu arte, edo lege honen 36. artikuluan hori egiteko jarritako legezko epea igaro artean.

#### **LDA-ren 65. artikulua. Prozeduraren bigarren fasea instruitzea.**

1. Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluak prozeduraren bigarren fasea hastea erabaki ondoren, uztailearen 3ko 15/2007 Legearen 58.1. artikulua aipatzen duen ohar laburra jakinaraziko zaio jakinarazleari, hark idatziz adieraz dezan, gehienez ere bi eguneko epean, bere iritziz oharrean jasotako informazioaren zein alderdi diren konfidentzialtasunez erabili beharrekoak. Epe hori igaro ondoren, Ikerketa Zuzendaritzak ohar laburraren behin betiko edukia erabakiko du, argitaratzeko eta eraginpeko izan daitezkeen eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Kontseiluko pertsona fisiko edo juridikoei ezagutarazteko.

2. Ohar laburra Lehiaren Batzorde Nazionalaren webgunean argitaratuko da, eraginpeko edonork informazioa eman ahal izan dezan, hamar eguneko epean.



3. **Kontzentrazioak autonomia-erkidego baten lurraldean nabarmen eragiten duenean, Ikerketa Zuzendaritzak dagokion organo autonomikoari jakinaraziko dio ohar laburra, aurkeztutako jakinarazpenaren kopiarekin batera, baita Ikerketa Zuzendaritzak egindako txostena ere, hogeit eguneko epean bidal dezan nahitaezko txosten ez-loteslea. Nahitaezko txostenaren eskaria interesdunei jakinaraziko zaie, uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 37.1. artikulua ondozondoretarako.**

4. Uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 58.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Ikerketa Zuzendaritzak egintzak zehazteko agiri bat egingo du, eta Lehiaren Batzorde Nazionalako Kontseiluari jakinarazi ondoren, interesdunei jakinaraziko zaie.

## **V. 2014-2020KO EKAINA ALDIAN MLBN-K BAIMENDUTAKO KONTZENTRAZIO-PROZESUETAN PARTE HARTU DUTEN EAE-KO ENPRESAK**

### **1. Azken urtea: 2019ko uztailaren 1etik 2020ko ekainaren 30era**

**23.** EAEko enpresek parte hartu duten kontzentrazio-eragiketak 10 izan dira azken urtean (MLBNk guztira onartutako 72 eragiketetatik). Eragiketa guztiak lehen fasean onartu dira, eta horietako batek konpromiso jakin batzuk bete beharko ditu.

**24.** Jarraian, EAEko enpresei eragiten dieten 10 kontzentrazio-eragiketetako bakoitzaren laburpen txiki bat egiten da.<sup>8</sup>

### **A. C/1112/20 EQUIPAFASA/ACTIVOS SIMPLY**

**25.** Eragiketa honen bidez, EROSKI Taldeko EQUIPAFASA enpresak 10 supermerkatu erosi ditu Bizkaian, jatorri frantsesa duen AUCHAN RETAIL taldeko Simply markarekin ustiatzen zirenak.

Eragiketaren ostean, EROSKIK % 30etik gorako kuotak lortuko ditu Bilbon, Galdakaon, Basaurin eta Getxon, nahiz eta erositako supermerkatuen eragin-eremu guztietan dituen lehiakideak.

Egunero kontsumitzen diren ondasunen hornikuntza-merkatuari dagokionez, alderdien baterako kuotak ez du % 10 gaindituko estatu-mailan.

---

<sup>8</sup> Iturria: CNMC



## **B. C/1103/20 POLYONE/ACTIVOS MASTERBATCH CLARIANT**

- 26.** Eragiketa honen bidez, POLYONEk CLARIANT AGren «masterbatch» negozio-lerroa (plastikoei kolorea emateko, indartzeko eta propietate jakin batzuk emateko erabiltzen den prozesua) eskuratu zuen.
- 27.** POLYONE Estatu Batuetako konpainia bat da, eta produktu kimikoak (plastikoak, koloratzaileak, konposite-panelak eta abar) fabrikatzen eta banatzen ditu; era berean, «masterbatch» lerroaren fabrikazioan eta salmentan dihardu. Espainian bi enpresa filial ditu «masterbatch» eta hainbat produktu kimiko fabrikatu eta merkaturatzeko. CLARIANT AG Suitzako multinazional bat da, eta produktu kimikoak fabrikatzen ditu hainbat industria-eremurentzat. Espainian ere lan egiten du «masterbatch» esparruan eta filial bat du Artziniegan (Araba).
- 28.** MLBNri eragiketaren berri eman zaio, Espainiako «masterbatch» lerroaren ekoizpen-eta salmenta-merkatuan egindako eragiketak sortutako kuota % 30etik gorakoa delako.

## **C. C/1092/20 BKS / SOCIEDADES KAM**

- 29.** Kontzentrazio-eragiketaren bidez, BURGER KING SPAIN SLUK («BKS») Bizkaian egoitza duten BURGER KAM SLU, EXPLORATORY INVESTMENT 2007 SLU eta EASY LUNCH SLU («SOCIEDADES KAM») sozietateen gaineko kontrol eskusiboa eskuratu du.
- 30.** BURGUER KING SPAIN SLU («BKS») (6) BKS sukaldaritza informalean lan egiten duen enpresa bat da, eta Burger King taldeak Espainia, Portugal, Gibraltar eta Andorrrarako Master Frankizia gisa izendatu du. Haren jatetxeak ustiatzen ditu Espainian, «Burger King» ikurrarekin eta frankizia-erregimenean. Master Frankizia gisa, azpifrankizia-akordioak egin ditu hirugarren independenteekin, eta beraz, hirugarren horiek ere ikur bereko establezimenduak ustiatzen dituzte.
- 31.** KAM SOZIJETATEAK honako hauek dira: BURGER KAM SL, EXPLORATORY INVESTMENT 2007 SLU eta EASY LUNCH SLU, «Burger King» ikurraren frankizia-erregimenean jatetxeak ustiatzen dituzten enpresak. Enpresa horiek Aragoi, Kantabrian, Gaztela eta Leonen, Galizian, Errioxan, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan daude kokatuta. KAM SOZIJETATEEN jarduera sukaldaritza informalean oinarritzen da.



#### **D. C/1088/20 CASTLETON/BIZKAIA**

**32.** Eragiketa honen bidez, CASTLETON enpresak Zornotzan dagoen ziklo konbinatuko instalazioa erosi zuen. CASTLETON nazioarteko enpresa bat da, eta gas naturalaren, energiaren eta produktu petrokimikoen salerosketan eta sektore horietako aktibo finkoetan inbertitzen dago espezializatuta.

**33.** MLBNri eragiketaren berri eman zaio, enpresak Euskal Autonomia Erkidegoko murrizketa teknikoak ebazteko merkatuan duen kuota % 30etik gorakoa delako.

Gaur egun, CASTLETONek ez du inolako presentziarik Espainiako elektrizitatearen eta gas naturalaren sektoreetan, eta beraz, MLBNk ez du uste kontzentrazio hori lehiarako mehatxua izan daitekeenik eragindako merkatuetan.

#### **E. C/1073/19 CARTAMUNDI/JARDEN**

**34.** Kontzentrazio honen bidez, GRUPO CARTAMUNDI taldeak JARDEN ACQUISITION ETVE SLren kontrol eksklusiboa eskuratu du, egoitza Legution (Araba) duen NAIPES HERACLIO FOURNIER (NHF) enpresaren jabea.

Eragiketa honek eragindako merkatua: joko eta jostailuen fabrikazioa; bereziki, kartak eta beste karta-joko batzuk fabrikatzen dituen.

#### **F. C/1080/19: 3I / AGESA**

**35.** Kontzentrazio honen bidez, 3i EOPFF Ireland SARL (3I) sozietateak SOCIEDAD CONCESIONARIA AUTOVIA GEREDIANA ELORRIO SAren (AGESA) kontrol eksklusiboa eskuratu du.

Eragindako sektore ekonomikoa: Bizkaian dagoen N-636 Gerediaga-Elorrio autobiarren zatia mantentzea, eraberritzea, egokitzea, zaintzea eta ustiatzea.

#### **G. C/1077/19 DERICHEBOURG / LYRSA**

**36.** Kontzentrazio honen bidez, DERICHEBOURG enpresak GRUPO LYRSA taldearen kontrol eksklusiboa eskuratu du. LAJO Y RODRIGUEZ, SA (LYRSA) Gasteizen dagoen birziklatze-planta bat da.

Kontzentrazio-eragiketak hondakinen bilketa- eta tratamendu-sektoreari eragiten dio.



### **H. UVESCO / SIMPLY -ACTIVOS- (C/1057/19)**

**37.** Eragiketa honen bidez, Uvesco SAK kontrol eskusiboa bereganatu du Simply markarekin jarduten duten Auchan taldeko eguneroko kontsumo-ondasunen txikizkako merkataritza-banaketako 11 establezimenduren ustiapenarekin lotutako aktiboen gainean.

Eragiketean inplikaturako sektore ekonomikoa eguneroko kontsumo-ondasunen txikizkako merkataritza-banaketa da, zerbitzu librearen formatuan.

### **I. LYNTIA / NEGOCIO IBERDROLA (C/1031/19)**

**38.** Lehen fasean baimendutako eragiketa honek konpromiso jakin batzuk bete behar ditu.

Eragiketa honen bidez, LYNTIA NETWORKS SAUK zenbait erabilera-eskubide eta kontratu-posizio eskuratu ditu zuntz optikoko kable-sareen eta haiekin lotutako elementuen gainean; horiek guztiak IBERDROLA ESPAÑA SAU, IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA SAU eta IBERDROLA GENERACIÓN SAUren jabetzakoak dira (horiek guztiak enpresa matrizeari dagozkio, hau da, IBERDROLA SAri). Era berean, eragiketaren barnean, LYNTIAk Iberdrolak indarrean duen zuntz optikoko bezeroekin egindako kontratuen zorroa erostea aurreikusten da.

Eragiketa telekomunikazioen sektorean egin da.

### **J. AVANZA / GRUPO PESA (C/1043/19)**

**39.** Kontzentrazio-eragiketa honen bidez, AVANZA MOVILIDAD URBANA SLUK PESA Taldearen kontrol eskusiboa eskuratu du, bere sozietate matrizeen kapital sozialean partaidetzak eskuratuz (Transportes Internacionales ADURNE SA, TRANSPORTES PESA SA eta PESA BIZKAIA SA).

Eragindako sektore ekonomikoa: errepide bidezko bidaiarien garraio publikoko zerbitzuak ematea Espainiako lurraldean, horietan oinarritzen baita AVANZA eta PESA Taldearen jardura. Horrez gainera, bi alderdiek bidaiarien nazioarteko errepide bidezko garraio-zerbitzuak eta hiriko bizikletak alokatzeko zerbitzuak eskaintzen dituzte.

## **2. 2014-2020ko ekaina**

**40.** Azken urteko datuak (72 ebazpen berri) aurreko txostenean aztertutako aldiko datuei gehituz gero, MLBNk guztira 554 kontzentrazio-eragiketa baimendu ditu 2014tik



2020ko ekainera bitartean, LDLk aurreikusitako atalaseak gaindituz. Eragiketa horietatik, bigarren fasean 5 bakarrik baimendu dira, eta horietako 3 konpromisoekin.

- 41.** Baimendutako eragiketa horietatik 54tan EAEko enpresek parte hartu dute, hau da, Ebazpenen % 9,75ean, eskuratutako enpresa edo enpresa eskuratzailer gisa. Eragiketa guztiak lehen fasean onartu dira, eta horietako bik konpromiso jakin batzuk izango dituzte.
- 42.** Hurrengo taulan, aztertutako aldiaren urte bakoitzean onartutako eragiketen kopurua jasotzen da, kontzentrazio motaren arabera sailkatuta.

EAE-KO ENPRESEN PARTAIDETZA DUTEN KONTZENTRAZIO BAIMENDUAK. 2014 - 2020ko ekainaren 30a								
KONTZENTRAZIO MOTA	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020 (2020ko ekainaren 30era arte)	Guztira
Partaidetzako enpresa sortzea						1		1
EAEko enpresak eskuratzeko kontrol esklusiboa		6	3	3	3			16
EAEko enpresak eskuratzeko baterako kontrola			1					1
EAEko enpresa eskuratzailer eta eskuratua - baterako kontrola			2					2
EAEko enpresaren kontrol eskusiboa eskatu da	3	8	5	4	2	7		32
Eskuratutako EAEko enpresa Aktiboak eskuratzeko.				1		1		2
<b>Guztira</b>	<b>3</b>	<b>14</b>	<b>11</b>	<b>8</b>	<b>5</b>	<b>9</b>	<b>4</b>	<b>54</b>

Taulan ikusten den bezala:

- 17 kontzentrazio-eragiketatan EAEko enpresak beste sozietate batzuen eskuratzailer izan dira, eta kasu horietatik 16tan kontrol eskusiboa eskuratu dute.
- Onartutako 34 kontzentrazio-eragiketatan beste enpresa batzuek EAEko enpresa baten kontrola eskuratu dute, kontrol eskusiboa 32 eragiketetan eta baterako kontrola gainerako 2etan.
- Eragiketetako batean enpresa bat partaidetza bidez sortu da.
- Baimendutako 2 eragiketetan enpresa eskuratua eta eskuratzailer EAEkoak dira.

### 3. LEAren txostena igortzea

- 43.** Lehia Defendatzeko araudiak kontzentrazioen kontrolerako prozeduraren bigarren fasean soilik aurreikusten du agintaritzza autonomikoen txostena igortzea.



Hala eta guztiz, LEAk egindako azterketan, non MLBNk azken 5 urteetan ebatzitako kontzentrazio-eragiketak aztertu diren, gutxienez bi kasutan ikusi da MLBNk Autoritat Catalana de la Competència-ren (ACCO) lankidetzara eskatu duela kontzentrazio-prozesu horien berri emateko. Kasu hauek dira: C/0802/16 DAIMLER/HAILO/MYTAXI/NEGOCIO HAILO<sup>9</sup> eta C/0648/15 GODÓ / MEDIASET / EDICA<sup>10</sup>. Kasu horietan ACCO-k kontzentrazioari buruzko balorazioa eman zuen.

MLBNk ez dio LEAri txostenik eskatu EAEko enpresei eragiten dieten eragiketa bakar batean ere.

- 44.** Kontseilu honen ustez, kontzentrazio-eragiketa batek autonomia-erkidego jakin batean duen eraginak ez du zerikusirik eragiketa hori ebazteko prozeduraren fasearekin, eta, beraz, oso positibotzat jotzen du kasu jakin batzuetan dagokion agintaritza autonomikoari eskumena ematea prozeduraren lehen fasean txosten bat igortzeko.

## ONDORIOAK

- 45.** MLBNk, 2014-2020ko ekaina aldirian, guztira 554 kontzentrazio-eragiketa baimendu ditu, LDL-k aurreikusitako atalaseak gainditu ondoren. Baimendutako eragiketa horietatik 54tan EAEko enpresek parte hartu dute, hau da, Ebazpenen % 9,75ean, bai eskuratutako enpresa gisa, bai enpresa eskuratzailer gisa. Eragiketa guztiak 1. fasean onartu dira, eta horietako bik konpromiso jakin batzuk izango dituzte.
- 46.** Enpresen kontzentrazio-eragiketak kontrolatzeari dagokionez, legeak oso esku-hartze mugatua ahalbidetzen die agintaritza autonomikoei; hala, bigarren fasean baimentzen diren eragiketetan soilik eman dezakete aholkua. Alabaina, kontzentrazio-eragiketa batek autonomia-erkidego jakin baten eremuan duen eragina ez dago eragiketaren ebazpen fasearen menpe; beraz, Kontseilu honen ustez, kasuan kasuko agintaritza-autonomikoari eskumena eman beharko litzaioke txostena prozeduraren bi faseetako edozeinetan eman ahal izateko.
- 47.** Beharrezkotzat jotzen da LDL-ren 57. artikulua aldatzea, eraginpeko autonomia-erkidegoari txostena lehen fasean eskatu ahal izateko, bigarren faseko instrukzio eta ebazpenean aurreikusita dagoen gisa:

<sup>9</sup> [https://www.cnmc.es/sites/default/files/1510112\\_7.pdf](https://www.cnmc.es/sites/default/files/1510112_7.pdf) y [http://acco.gencat.cat/web/.content/80\\_acco/documents/arxius/actuacions/20170103-Informe-CE-HAILO-MYTAXI-ESP.pdf](http://acco.gencat.cat/web/.content/80_acco/documents/arxius/actuacions/20170103-Informe-CE-HAILO-MYTAXI-ESP.pdf)

<sup>10</sup> [https://www.cnmc.es/sites/default/files/623427\\_7.pdf](https://www.cnmc.es/sites/default/files/623427_7.pdf) y [http://acco.gencat.cat/web/.content/80\\_acco/documents/arxius/actuacions/informe-MEDIASET\\_GODO\\_EDICA\\_DEF-no-confidencial-ESP-web.pdf](http://acco.gencat.cat/web/.content/80_acco/documents/arxius/actuacions/informe-MEDIASET_GODO_EDICA_DEF-no-confidencial-ESP-web.pdf)



Baldin eta kontzentrazioak autonomia-erkidego jakin baten lurraldeari modu nabarmenean eragiten badio, Ikerketen Zuzendaritzak derrigorrezko txostena, loteslea izango ez dena, eskatuko dio gaiak eragiten dion autonomia-erkidego horri, eta gorago aipatutako ohar laburraz batera, aurkeztutako jakinarazpenaren kopia ere igorriko dio, kontu konfidentzialekin zerikusia duten gaiak konpondu ostean, hogeit eguneko epean txostena egin dezan.

